Sarean doan eskaintzen dugu, baina honek kostu bat du.
Interneteko ARGIA ekonomikoki lagundu nahi duzu?



# Ixa taldea, 25 urtez hizkuntza-teknologiak garatzen



**Eider Madina Berasategi**
2013-11-04

0 0

Tweet 27 | Follow @xaukenaxauk | Gomendatu 13




Euskararen ikerketa aplikatuan lan egiten duen Ixa Taldeak 25 urte betetzen ditu aurten.

*IXA taldeak*, hizkuntzaren tratamendu automatikoan lan egiten duen Euskal Herriko Unibertsitateko ikerkuntza-taldeak, 25. urteurrena bete du aurten.

Urteurrenaren harira hainbat ekimen antolatu dituzte:

Azaroaren 6an, EHUko Donostiako Informatika Fakultatean hitzaldia emango du Jon Patrickek (Health Languages Laboratories): *Moving from Computational Linguistics to Language Engineering – Examples from Clinical Language Processing*. 15:30ean hasiko da.

Azaroaren 7an, EHUko Carlos Santamaría Zentroko "Antonio Beristain" entzunaretoan, gonbidatuentzat *An Ixa History of Computational Linguistics* hitzaldia emanen du Patrickek berak. Ondoren *Ixak 25 urte* bideo-emanaldia izango da; eta jarraian *Ixa: barne-hotsa eta oihartzuna* mahai-ingurua osatuko dute Miren Azkarate, Mans Hulden eta Xabier Arregik, Olatz Arregi moderatzaile lanetan izanen dutela. (Gonbita jasotzeko ixa@ehu.es helbidera idazteko eskatu dute antolatzaileek)

Bestalde, #ixa25 traola erabiliz IXA taldea agurtzeko, zoriontzeko, anekdotaren baten berri emateko… gonbitea luzatu dute kideek. Adierazi dutenez, hizkuntza-teknologia giza komunikazioa hobetzeko tresna gisa ulertzen dutenen komunitate "argazki" informal bat lortu nahi dute horrela.

**25 urteko ibilbidea**

IXA taldea Euskal Herriko Unibertsitateko ikerkuntza-taldea da, hizkuntzaren tratamendu automatikoan lan egiten duena. Euskararen gaineko ikerketa aplikatua dute xede nagusi, baina beste hizkuntza batzuetan ikertzen eta produktuak garatzen ere aritzen dira.

Taldeak sortu dituen baliabideen artean Xuxen zuzentzaile ortografikoa, Opentrad plataforman integratutako Matxin itzultzaile automatikoa, Euskal WordNet sare lexikala eta ZT eta EPEC corpusak aurkitzen dira.

1988an sortu zen Ixa taldea eta ordutik zeregin eta kide kopurua ugarituz joan dira. Egun 53 kidek osatzen dute taldea: 40 informatikari, 10 hizkuntzalari, 3 ikerkuntzarako teknikari, horietatik 31 doktore eta 7 doktoregaik.

Funtsean, euskararentzat hain beharrezkoak eta onuragarriak izan daitezkeen sistema (erdi)automatikoak garatzea da haien helburua.



2390 zenbakia.
2013ko azaroaren 10a



2389



2388

Astekaria | Larrun | Hemeroteka
Elkarrizketatuak | Egileak | Atalak

Babeslea
Irizar

Argia
Atsegin
5.791 lagunek Argia atsegin dute.



Jaso egunero email bakarrean eguneko 10 albisteak. Eta astean behin, astekaria. **Dohainik.**

Idatzi e-posta alb

## Ale berean...



**Galizia**
Bidea aurkitu nahian

**Ikusi albiste hau ondorengo hedabideetan:** Unibertsitatea.net




Gomendatu 13

INPRIMATU

## 0 comments

0

Leave a message...

Best Community Share

No one has commented yet.

Subscribe Add Disqus to your site



**Joseba Irazoki**
"Internetekin, industria ez da beharrezkoa musikarentzat"



**Kilian Jornet**
"Korrika zoazela lo geratzea ez da zaila, 40 ordu daramatzazunean"



**Koldo Izagirre**
"Donostiak ez daki zein diren bere problemak"



**Jon Mirena Landa**
"Beste bake prozesuetan bezala, gurean ere egia da gakoa"



**Veronica yuquilema**
"Hirian herri indigena aldarrikatzen ari gara"



**Egin dezagun otoitz Fukushiman piszina husten asma dezaten**

Kazetaritza independentea eta profesionala egiten dugu, euskaraz eta euskaldunontzat.

**HARPIDETU ORAIN**

Idatzi helbide elek

ALTA EMAN

**EGUNEKOA POLITIKA NAZIOARTEA GIZARTEA KULTURA EUSKARA EKONOMIA ASTEKARIA MULTIMEDIA**

**Nor gara | Kontaktua | Mapa | Lege oharra | RSS jarioa | Iragarri | Harpidetu | Tel: 943 371 545**

**1998 - 2013 KOMUNIKAZIO BIZIAGOA S.A.L.**
ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu, zabaldu eta argitaratzeko libre zara, beti ere, gure egiletza direla aitortzen baduzu eta baldintza beretan egiten baduzu.